

LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Arnaldo Otegia, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak legebiltzar taldeko Eledunak, indarrean dagoen araudiaren 23.2. artikularen babesean, talde honek Jaurlaritzak aurkeztutako "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa eraberritzeko Proposamenari" aurkeztu dion osoko zuzenketa tramitera ez onartzeari buruz Mahaiak 2004.eko otsailaren 10ean hartutako erabakiaren aurrean BERRAZTERTZE IDAZKIA aurkeztu du.

Eskaria, ondorengo arrazoien arabera egiten da:

Legebiltzarraren Araudiak, eta zehazki Araudiaren 23.1.4. artikulua ezarritakoaren arabera, izaera parlamentarioa duten idazkien eta dokumentazioaren kalifikazioa Mahaiak egin behar du, Araudiak ezartzen duenari jarraikiz, Mahaiak idazkion onargarritasunari ala ez-onargarritasunari buruz erabaki beharko duelarik.

Mahaiari dagokion funtzio kalifikatzailea hau, beraz, Legebiltzarrean garatzen diren jarduerak egokiak badirela eta Ganbarak dituen funtzioekin bat badatozela ziurtatzean datza.

Horretarako, sarritan Mahaia Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoen txostenaz laguntzen da, aurkeztu diren idazkiak egokiak diren ala ez erabakitzeko. Zuzenketa kasuan, gainera, ohikoa da Mahaia bildu aurretik Zerbitzu Juridikoek onargarritasunari buruzko txostenak prestatzea non zuzenketa markatutako epearen barruan eta forma egokian aurkeztua izan den aztertzen den, beti ere ekimen parlamentario bakoitzari dagokionez Araudiak ezartzen dituen baldintzei erreparatuta.

Aztertzen ari garen kasuan ere Zerbitzu Juridikoek txostena egin dute – 2004.eko otsailaren 6koa- non hainbat kontsiderazio egin ostean ondorengo aipatzen da: *"De lo expuesto se deduce la imposibilidad reglamentaria de calificar esta enmienda como de texto alternativo, lo cual no excluye, en aras al principio "pro actione", su consideración de enmienda de totalidad con petición de devolución de la propuesta del reforma estatutaria al Gobierno, (...). En realidad (...) estaríamos ante el mismo caso que la enmienda de totalidad presentada por el grupo Socialistas Vascos que fue acertadamente planteada como de petición de devolución"*.

Zerbitzu Juridikoek egiten dituzten kontsiderazio batzuen egokitasunean sartu gabe, argi dago bertan akats formalak (...*queda patente un defecto de incongruencia formal...*) aipatzen direla soilik osoko zuzenketa berkalifikazioa gomendatzeko orduan. Eta akats formal horiek direla medio, "testu alternatiboa proposatzen duen osoko zuzenketa"ren izaera alboratzea eta "proposamena Gobernura bueltatzea eskatzen duen osoko zuzenketa" gisa kalifikatzea gomendatzen diote Mahaiari.

Puntu honi dagokionez argi dago jarduera parlamentarioan eta, oro har, jarduera juridikoan oinarrizkoa den printzipio bat gorde nahi izan dela: hartzen den erabakiaren eta kaltetuak suerta daitezkeen eskubideen arteko **proporzionalitatea** zaintzea.

Taldeen funtsezko eskubideekin eta interesekin lotuta dauden ebazpen guztiak, proporzionalitatearen printzipioan oinarritu behar dira. Printzipio hau aplikatzeko orduan, proposatzen dena ez baldin bada onartzen urratzen diren edota urra daitezkeen eskubideekin harremanetan jarri behar da. Proporzionalitateak eskatzen du beste guztiaren gainetik eskubideak gailentzea beti, Mahaiak hartu duen ebazpenak egiten ez duena.

Aitzitik, Mahaiak Zerbitzu Juridikoen irizpideei jarraitu beharrean -ohikoa den bezala- zuzenean osoko zuzenketaren tramitazioari uko egitea erabaki du, legebiltzarkideen eta legebiltzarkide taldeen oinarrizko eskubideen defentsaren alde jarraitu behar den printzipiozko joeraren aurkako norabidean. Honela, ondorioa ezin larriagoa da: forma arazo berdinak argudiatuta (errez gainditu daitezkeenak taldeari zuzenketa formala egitea eskatuta ala txosten juridikoak gomendatzen duten birkalifikazioa eginda), legebiltzar talde oso bati "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa eraberritzeko Proposamena"ren inguruan duen planteamendu orokorra Legebiltzarrean aurkeztu eta defendatzeko eskubidea kentzen zaio.

Beraz, Mahaia osoko zuzenketari bidea ixteko erabakiarekin, funtsezko eskubide parlamentarioak urratzen ari da eta, gainera, horren jakitun da, sortutako forma arazoan aurrean Zerbitzu Juridikoek eskaini dioten aukerari – zeinaren arabera eskubide parlamentarioen urraketa oso maila txikikoa izango litzatekeen- muzin eginez eta, bere ordeztan, legebiltzar jardueran ondoriorik larrienak (talde bat eztabaida batetik alboratzea erabaki zigortzaileak tartean ez direlarik) ekartzen dituen erabaki baten alde eginez. Txosten juridikoak hartu behar duen erabaki kalifikatzailea eta zaindu bihar dituen eskubide parlamentarioen arteko proportzioa gordetzen duen alternatiba eskaintzen dion arren Mahaiak legebiltzar talde honen eskubideen kalterako den erabakiaren alde egiten du.

Bestalde, Legebiltzarreko Araudiak argi adierazten du Mahaiak duen funtzio kalifikatzailea **Araudiak ezartzen duenaren arabera** egin behar duela (23.1.4. artikulua) eta Mahaiak izaera parlamentarioa duen idazkiei bidea emateko duen funtzioa **Araudiak ezartzen dituen arauari jarraikiz** bete behar duela (23.1.5. artikulua).

Gainera, Araudia argia baldin bada honen inguruan dagoen jurisprudentziak ez du zalantzetarako aukerarik ematen. Legebiltzarreko zerbitzu juridikoek beraiek 2001eko irailaren 29an Batasuna legebiltzar taldeak aurkeztutako beste proposamen baten harira egin zuten txosten juridikoan jasotakoa begiratu besterik ez dago Mahaiaren funtzio kalifikatzailea noraino iristen den eta zeintzuk diren funtzio hori betetzeko kontutan hartu behar dituen aspektuak ikusteko: *"Al hilo de todo lo anterior, concluye el TC que a la hora de ejercer su función de admisión a trámite de iniciativas parlamentarias, las Mesas deben atenderse a lo señalado por el Reglamento de la Cámara para*

cada uno de los procedimientos establecidos, de manera que lo que la Mesa examinará de cara a acordar o denegar la admisión será aquello que el Reglamento determine. En caso contrario, en caso de extralimitación, se estaría cercenando el núcleo de la función representativa parlamentaria que señalábamos en el punto primero. Es decir, si el Reglamento facultara a la Mesa a un examen más allá de la estricta verificación de los requisitos formales, tal examen sería absolutamente pertinente y tras el mismo, el órgano rector de la Cámara decidiría en consecuencia. Pero "Si la legalidad aplicable no impone límite material alguno a la iniciativa, la verificación de su admisibilidad ha de ser siempre formal, cuidando únicamente de que la iniciativa cumpla con los requisitos de forma que le exige esa legalidad (STC 124/95 y 98/99 FJ 3º)". En definitiva, pues, es el Reglamento el que da la pauta a seguir e indica hasta donde puede llegar la Mesa en el trámite de admisión de iniciativas".

Kasu honetan, Araudiak ez du, artikuluko bakar batean ere, talde honek aurkeztu izan duen ekimenaren bezalakorik planteatu ez daitekeelarik aipatzen eta, gai honen inguruan dauden erresoluzioak ikusita, Mahaiak osoko zuzenketa tramitera onartzea baino beste aukerarik ez zeukan.

Berriz, Mahaiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak legebiltzar taldeak aurkeztutako osoko zuzenketa tramitera ez onartzeko erabakia hartzen duenean, ez da, inondik inora, Araudiak ezarritakoan oinarritzen. Baieztapen hau errez ondoriozta daiteke talde honek jaso duen ebazpenaren jakinarazpen ofiziala irakurrita. Izan ere, bertan Mahaiaren lehen eta bigarren idazkarien tramitazioaren kontrako interbentzioak eta Mahaiaren lehendakariaren eta lehen lehendakariordearen tramitazioaren aldeko interbentzioak jasotzen dira. Azken bi hauek (lehendakariak eta lehen lehendakariordeak) zerbitzu juridikoek erabili dituzten irizpideekin bat egiten badute ere –eta beraz aipatu txosten juridikoan bilatu behar dira euren araudiaren araberako argudioak-, tramitazioaren aurka agertzen direnek ez dute beraien jarrera Araudiak osoko zuzenketa inguruan esaten duenaren arabera kokatzen, beraien jarrerak zein artikuluren babesean hartuta dauden aipatzen ez dutela. Areago, bigarren idazkariak dioena hau da: "... zuzenketa ez dela eskatzen testua Jaurilaritzari itzultzeko eta bere ustez ez dela osoko zuzenketa. Ondorioz, artikuluei egindako zuzenketa partzial modura kalifikatzeko eskatzen du." . Esaldi honetan agerian geratzen da mahaikide hau ez dela Araudiaren araberako irakurketa bat egiten ari, bere uste pertsonalen araberakoa baizik. Ordea, jakina da Legebiltzarreko Mahaia ez da iritzi pertsonalen araberako erabakiak hartzen duen organoa, bere funtzio zuzentzailea justua eta orekatua izan dadin erakundearen partaide guztientzako komunak diren joko arauen arabera –Araudia- baino ezin dela gauzatu, une oro eta kasu guztietarako.

Baina, Araudiaren aplikazioaren inguruko puntu honi dagokionez gehiago esan behar da. Mahaiak osoko zuzenketa tramitazioa ez onartzeko bideratu duen jakinarazpenean, aipatutako aldeko eta kontrako interbentzioen ostean, tartean beste ezer aportatu gabe, zera dio: "*Horrenbestez, Mahaiko kide batzuek eta besteek adierazitakoa aintzat hartuz, zuzenketa hau ez da tramitera onartu*".

Ebazpenaren araudiaren arabera oinarritze eta argumentatze faltak, erabakiaren beraren **arbitrariorotasuna** agerian uzteaz gain, legebiltzar talde honek araudiaren arabera dituen eskubideen defentsarako aukera zeharo mugatzen du, **indefentsio** egoera batetan utziz. Mahaiak legebiltzar talde baten ekimena atzera botatzeko darabilkien argudioek euskarri juridikoa behar dute izan une oro, euskarri horretatik bertatik etorriko baita taldeak hartutako erabaki horren kontra bere interesen defentsarako eskubidearen aplikazioa.

Bestalde, ezin ahaztu tratatzen ari den gaiaren garrantzia (Autonomia Erkidegoan 24 urtez indarrean egon den Estatutuaren aldaketari buruzko eztabaidaz ari gara) eta gizartean duen transzendentzia. Egoera politiko orokorrari dagokion gaia izanik eta, beraz, interes sozial orokorreko gaia, Erkidego horren Legebiltzarrean ordezkartza politiko zilegia duen legebiltzar talde bati, praktikan, erabaki desproporzionatu eta arbitrario hau dela medio, **ahotsa kendu nahi zaito** funtsezko eztabaida honen planteamendu orokorrari dagokionez eta honek, arestian aipatu den desproporzionalitatea ez ezik, talde honek gainontzeko legebiltzar talde guztien **baldintza berberetan eztabaidatzeko** eta parte hartzeko duen oinarritzko eskubide parlamentarioaren urraketa dakar.

Hau guztia ikusita, badirudi Mahaiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak legebiltzar taldeak aurkeztu duen osoko zuzenketa tramitera ez onartzea erregelamenduaren arabera ebazpen objektiboa baino, Mahiko partaide batzuen interes politikoaren arabera erabakia dela. Erabakia hartzeko orduan Mahaiak erabiltzen duen irizpide objektibo bakarra zerbitzu juridikoen txostena da, gainontzeko guztia talde honek egiten duen proposamenaren inguruko balorazio politikoaren arabera esaten delarik. Eta jakina da Mahaiaren funtzioa ez dela proposamenaren eduki zehatzari begiratzea, proposamenaren forma eta planteamendu egokiari baizik; aspektu hau nahiko argituta geratu da txosten juridikoaren azterketa egin denean eta, ondorioz, ez dugu hemen berriro errepikatuko. Baina, Mahaiaren akta eta ondoren mahaikide batzuk egindako adierazpen publikoak ikusita, talde honen konstatazioa da osoko zuzenketaren forma aldeko egokitasunari erreparatu beharrean, osoko zuzenketaren planteamendu politiko zehatzari erreparatu izan zaiola erabakia hartzeko orduan bai eta osoko zuzenketaren talde proposatzailea zein den kontutan hartua izan dela ere. Honela Mahaiak duen funtzio kalifikatzailea gainditu egin du eta beste mota bateko kontsiderazio politikoak eta ideologikoak kontutan hartu ditu bere erabakia hartzeko orduan, talde honen aurkako jarrera diskriminatzailea erabiliz.

Kasu guztietan, edozein izaerako organo guztien –bai eta izaera judiziala dutenenak ere– ohiko prozedura da, aurkezten den ezein dokumentuk, idazkik edo eskarik forma akatsak baldin baditu, aurkeztu duenari epe bat ematea akatsak zuzentzeko; honela egiten da proposatzailea den partearen eskubideen salbanguardan laguntzeko. Kasu honetan, berriz, ez da honela egin, proposamena tramitera ez onartzearen aldeko hautua egin delarik. Kasu honetan logikoena zera litzateke: zuzenketa tramitera onartzea eta, honekin batera, egon zitezkeen akats formalak zuzentzeko proposamena bideratzea talde proposatzaileari, beti ere Mahaiaren intentzioa taldeek eztabaida honetan

parte hartzeko duten eskubidea zaintzea baldin bada. Aitzitik, hartutako ebazpenak argiki adierazten du asmoa zeharo kontrakoa izan dela, hau da, talde parlamentario bat eztabaida honetatik kanpo uztearena. Eta hau honela ez bada izan, oraindik ere posiblea da talde proposatzaileari beharreko zuzenketa formalak egiteko agindua eta aukera ematea. Honela, taldeak garbiki adierazi duen eztabaidan parte hartzeko asmoa zainduko litzateke eta asmo hau da, ezer baino lehenago, mahaiak zaindu behar duena. Mahaiak hala egiten ez badu **berdintatsunaren printzipioa urratuko luke**, osoko zuzenketaren tramitera ez onartzearen bitartez legebiltzar talde bati eztabaida honetan berdintasunezko baldintzetan parte hartzeko eskubidea kentzen ari baitzaio.

Zuzenbidean oinarrizkoa den kontsiderazio hau praktika politikoaren eremura eramanez gero, erabat kontraesankorra da jarduera parlamentarioak izan behar duen izaerarekin, non gizartearen ordezkari politiko guztiek, salbuespenik gabe, beraien proposamenak egiteko eskubidea izan behar duten. Ondorioz, oinarrizkoak diren eskubideen zaintzaz ari denean, ezin da legearen edo araudiaren interpretazio murriztailerik egin, kasu honetan Mahaiak egin duen moduan. Interpretazio murriztaile honen ondorioak oso larriak dira jasan behar dituen aldearentzat, kasu honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak legebiltzar taldearentzat.

Zentzu honetan esan behar da Mahaiaren erabakia **politikan parte hartzeko oinarrizko eskubidea urratzen duela**. Gure eremu geopolitiko hurbilenean indarrean dagoen legediak argi adierazten du hiritarren oinarrizko eskubideen artean politikan parte hartzeko eskubidea dagoela, zuzenean edo eta aukeratutako ordezkarien bitartez. Eta hiritarrek aukeratzen dituzten ordezkari hauen betebeharra da, besteak beste, gizartean dauden kezkek eta eztabaidak erakundeetara eramatea. Zentzu honetan, begi bistakoa da gaur egun, Euskal Herrian, gizarte mailako eztabaida garrantzitsua egon badagoela gure herriak duen eta beharko lukeen estatus politikoari buruz.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak legebiltzar taldeak aurkeztu duen osoko zuzenketak euskal gizartean funtsezko gai honen inguruan dagoen ikuspegietako bat jasotzen du zalantzarik gabe. Zuzenketak, Araudiaren ikuspuntutik izan ditzakeen formazko akatsak gaindituta, jarduera politiko eta parlamentarioan dagoen inork ezin ukatu legebiltzarrean eta oro har gizartean zabalik dagoen eztabaida honi ekarpena egitea baino ez dio egiten.


Edozein erakunde parlamentarioren oinarrian dago debate politikoa, iritzien elkar trukaketa eta eztabaida politikoa, eta inolako organo parlamentariorik ezin du berezko izaera hau ezabatu, are gutxiago Mahaiak, bere funtzioen artean ez baitago -ez legaren aldetik ez eta araudiaren aldetik ere- Legebiltzarrean eman daitezkeen debate politikoak eragozteak.

Hau guztia dela eta, zera eskatzen da:

Araudiaren 23.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Bozeramaile Batzordeari entzun ostean, Mahaiak 2004.eko otsailaren 10ean harturiko akordioa berrazter dezan, non Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak legebiltzar taldeak Jaurlaritzak aurkeztu duen "Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoa eraberritzeko Proposamenari" aurkeztu dion osoko zuzenketa tramitera ez onartzea erabaki zuen, eta Araudian ezarritakoa aplikatuz, bere onargarritasuna erabaki dezan.

Era berean, aurkeztu den osoko zuzenketak izan ditzakeen akats formalak zeintzuk diren jakinarazi diezaiotela legebiltzar talde honi, aurkeztutako osoko zuzenketan egin beharreko forma aldeko zuzenketak egin ahal izateko edo, honen ezean, txosten juridikoak aipatzen dituen akatsen araberrako birkalifikazioa eman dadin.

Gasteiz, 2004ko otsailaren 13an



Izpa, Arnaldo Otegi Mondragon
Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak
Legebiltzarkide taldeko Eleduna